

## **Olerki erotikoak eta hauen ingurunea (I)**

PAKO SUDUPE

Alde batetik irrika sortzen du, lore hauek geure baitaratzeko gogoia, dastaturiko beste batzurekin batean barnean daramagun euskal baratzatxoa aberatsenagotzeko, gero hainbat zera aztertzeko gutizia intelektuala ere bai; beste alde batetik berriz, tristezia, gure euskal literatura aratzak hainbat giza talderen-gandik pairatu duen ezaxola eta atxikimendu-eza nahikoa ez bailiren, horrezaz gain pairatu behar izan duen askoren aldetiko zentsura dorpeagatik.

Kristautasunaren sexu-tabuak, ezin jorraturiko gaiak ausardia handixeago zein ttikixeagoz jorratzen entseiatu ondoan, zer da eta tabuak suntsitzeko tabu-hausle izan nahi zuketen obra horiek berak zokorik zokoenean, argitara atera gabe, tabuak berak itoaraziak. Gisa honetako burubideetara azken aldi honetan begipean izan ditudan olerki erotikoek erakarri naute.

Olerki erotikoen deiturapean dudarik gabe mota askotakoak sartzen dira baina izendapen hau erabiltzean, guztiz ere 1950eko hamarkadaren lehen urteetan euskal literaturan lehenbizikoz ageri diren hertsiki sexu-ihardunari berari atxikirikakoak ditut gogoan. Askok ez izanagatik kopuruz —euskal literaturan soberaniarik ba al dugu?— ohargarriak badirela deritzat. Jon Mirandek, Salvatore Mitxelenak "Irigoï" izengoitiz eta Nemesio Etxanizek esan bezala tema aldetik nagusiki sexu-iharduna dutenak banaka batzu badituzte eta hauen artetik adierazgarrien deritzadanak hautatu ditut azterketarako, hots, Jon Miranderen



*Oianone*, Salvatore Mitxelenaren *Susaak* eta Nemesio Etzanizen *Griñen loa*.

Kronologiari dagokionez, Jon Miranderena 1951ko uztaila baino lehenagokoa da Andima Ibiñagabeitiak bidali zion gutun batek frogatzen duenez: “*Ene adiskide bat irarkola bat erosi bear duela esaka dabilkit gure euskel-lanak emen Paris'en argitaratzeko, idazti ta aldizkarian. Aurren liburua, zure olerkiz ornitua nai nizuke, Oyanone tartean*” (Andimak Miranderi 1951-Uztak 20).

Salvatore Mitxelenaren *Susaaki* dagokionez, garbi dago 1952rako egina zuela, Nemesio Etzanizek Andima Ibiñagabeitiari 1952ko abenduaren 9an hain zuzen, egun gutxi barru bidaliko diola esaten baitio gutunarekin batean: “*Egun gutxi barru bialduko dizut olerki au (bertsotan baita egiña); ... Olerki orren izen-burua 'SUSAAK'*” (1952-XII-9).

Nemesio Etzanizen *Griñen loa* berriz, segurki 1953ko udan ondua dateke. Andima Ibiñagabeitiari datarik gabeko gutunarekin batean bidali zion baina bertan ematen dituen hainbat argitasunengatik aldi-bitarte horretakoa dela egiazta daiteke.

Oroz lehen, hona hemen begiz jo ditudan olerkiak berak. *Oianone* Andima Ibiñagabeitiak argitaratzeko prestaturik zuen kopiatik dagoen-dagoenean, —Jon Miranderen eskuizkribua bera ere begien aurrean izan dut baina nere iritziz kopia erabatekoagoa Andima Ibiñagabeitiarena litzateke— aurrerago adieraziko ditudan aldaketa ortografikoak salbu.

Bidenabar esan, Xabier Olarrak bere Jon Miranderen poemak edizioan adierazten zuenez, oraindik ere hark zioen bezala edizio kritikoa eginkizun dugula. Nere ustez, horretarako Jon Mirandek Miangolarrari igorrikako kopiaz gain Jon Miranderen eskuizkribuak —batzu badira Andimaren eskuetan— eta guztiz ere Andima Ibiñagabeitiak zuena hartu behar da oso kontutan behin-betiko testua finkatzerakoan. Kontu egin behar da Jon Mirandek 24 poema hautatu ontzen eta orrazten ari zen garaian ez zuela idazmakinarik eta egin ahala A. Ibiñagabeitiari igortzen zizkiola honek makinaz jo zitzaizkion. Zenbaitetan, gutunetan agiri denez, honen makinatze lanak ez zuen gogobetetzen eta biak

Jon Miranderen etxean geratu ohi ziren, besteak beste, olerkiok behin-betiko finkatzeko.<sup>1</sup>

Nolanahi ere, egileari gutienez bera bezain punttalakurlo izatea zor diogu testu-finkapenari dagokionez, hark utzi ondatsunak miatu ondoan hedarazi nahiz gabiltzanok.

Olerki honen zoriari nagokiola esan, jakina denez, 25 urtesu itxaron behar izan zuela argira ateratzeko.

*Susaak* Nemesio Etxanizek Andima Ibiñagabeitiari igorritakotik aldatuko dut zuzenean ez baitut beste kopiari ezagutzen. Lehenbizikoz ateratzen da argitara alabeharreko itzalpeko berrogeialdiaren ondotik.

*Griñen loari* dagokionez, Nemesio Etxanizek makinaz jotako kopia bat aldatuko dut *Jakin* aldizkarian —5. alea 1978— lehenbizikoz agertu zenak akastxoren bat baduelako. Hortaz, honek ere, ondu zenetik 25 urtetsura ikusi zuen argia estraineko.

Egin ditudan aldaketa ortografiko bakarrak hauexek izan dira: “r” “rr”, “l” “ll”, eta “t” “tt”, eta i+bokal “j”. Gainerakoan erabilitako kopiari jarraitu natzaio.

## OIANONE

“Munduyan ezta gauçaric  
Hayn eder ez placentic  
Nola emazia guiçonaren  
petic buluzcorrirc”

*Mossen Bernat Echapare Aphezak.*

(1) Andina Ibiñagabeitiaren era guztietako dokumentu mordo bat Estibalizko komentuan dago, nork antolatuko eta argitaratuko zain. Ez ahal dira luzaz egongo; ez luke behar behinik- behin!



Gelan sarrthu ginenean  
 Gauerditan, ilhunean,  
 Mundua egin zan mutu.  
 Zuten izarrek kantatu  
 Biok etzan ginenean.

Oianone! Oianone!  
 Gau hunetan zaitut ene;  
 Larru legun eta zuri,  
 Bulharr samurr, sabel guri,  
 Nire neska Oianone.

Ezti bakhanez bethea  
 Zure matxantto maitea  
 Urtzen zan ene ahora,  
 Zabalik lore antzora  
 Eta gozokiz bethea.

Zure baratzeko borthan  
 Arrotz batek jo du, bertan  
 Sarrbidea emaiozu  
 Zama bat baithakharr pisu,  
 Ezdezazula utz borthan!

Gauko oihanetan lasterrka  
 Zure gainean zaldizka,  
 Behorr zalhu eta bizkorr,  
 Gau-bidetan gaindi, mozkorr  
 Banaramazu lasterrka.

Ezpain likhits, esku lizun,  
 Atseginetan jakintsun  
 Bulharretik belhaunera  
 Haragi biok ikhara,  
 Jauzten zaitut, neska lizun!

Hiltzen naizela dirudi:  
 Batetan mila su-ziri  
 Ene burmuinetan sarrthu...  
 Botz-uhinak uzten gaitu  
 Hilik garela irudi.

Egin du irri Ilhargiak;  
 Hesten zaizkiola begiak  
 Neskatilak erraiten dau  
 Eskerr onetan othoitz haur,  
 Dantzularik Ilhargiak:

"Gora izan hadi, Suge,  
 Hi haizenik ene Rege,  
 Hi haizenik ene Jainko  
 Gau huntan eta bethiko,  
 Urrhe-buztaneko Suge!

Hathorrrkit berriz laztanik;  
 Janhari gozo badut nik  
 Ene baratzean are  
 Ezti gehiagorik Hire,  
 Bil ezak berriz laztanik."

Suge laztana nekhatu  
 Zan ordea... loak harрту...  
 Ezti-loreetan etzanda  
 Atseden harrtzen ari da,  
 Gaixoa baita nekhatu.

Ene maitea, moxu bat  
 Has dezantzat bertze hainbat!  
 Sugea baitatza lotan  
 Indarren bihurtzekotan  
 Oi! emaiozu moxu bat...



## SUSAAK

Lizunkiro etzanda,  
eder bezain loitsu,  
billutsik orra nexka,  
zuri, dizdiratsu.  
Erdi-zabal, irrikaz,  
zango eta larru,  
gurari izkutuena  
lasaitu nai bai'lu.  
Soin osoa dardaraz,  
bi begitan bi su.  
Sorgin Akelarreko,  
tximak naspil ta izu...  
Titi-mokorrak plox-plox,  
bi mami-katillu...  
goi ta beko bi auak  
barrez, odol-putsu...

...Ta arraren buztan motzak  
albait luze ta zut,  
emearen txuloaz  
"noiz? noiz?" galdetzen du.

.....  
¡Itxoñ!. Lendabizitik  
txipli-txapla-soñu.  
Ekin diote eztiki,  
mingain eta esku,  
usainka ta igurtzika,  
millizka ta musu,  
titi ta ipur-masaillak  
jan bearrez, itxu...

...ta biak narru-gorri  
or ari dituzu.  
Buztan zutiak baña,  
"noiz? noiz?" galdetzen du.  
!Oraintxe! Ta sar dio  
asperen ta amorru,  
errorañoixe, zerbait  
atxi ezin bai'lu.  
Ta nexkak mutillaren  
iltamuan dantzu:  
—"Ortxe!... sabel-erditik...  
ortxe... barru-barru...  
sartu ta urra ta ixuri...  
jerrai oro uztu  
igan, igan il-arte,  
ta igan topa zeru!"

T'ipurtzulotik elduz  
eskuz estu-estu,  
ipurtzulotikan, bai,  
naiz eta kakaztu:  
mutillak dun eta dan  
guzia an jaurti du...  
biak geldi dirala  
zurrun... sorgor... mutu...

...T'Erio gozoenak  
biak lotu ditu  
besarka illezkorrean  
Zeruaren zeru!.

## GRIÑEN LOA

Nork zesakenan, maite,  
gure eztaigabea,  
gu biok noizbait  
onen paketsu gindezkeanik  
alkarren aldamenean!



Atzo... Gaur Jaungoikoak  
bedeinka zigun  
maitasun-lotura.  
Gaurtik guzien aurrean  
sar indeke nere gelan.  
Irea naun, nere aiz;  
mingain txarrak ezingo au  
bazkatu bekaitz-arraiz.

Sartu intzanan neregana...  
Arpegia lotsa-larrosa unan;  
begietan, zeru bana.  
Maitasunak lotsa aizatuz,  
zabaldutintzanan dardaraz.  
Nere biotzak ikaraz,  
estutu indunan aiduruz.

Ai, gure aurren iturri,  
Jaunak eman dizkin metak!  
Ire biotzak barruan  
lekurik ez, ta kanpora  
luzatu ditun aienak.  
Zelai zuri zabala,

aien azpi unan.  
Berago... basa beltzeko  
leizea errekartean...  
Etzan intzananean,  
San Migeletako ur biziak  
gogora nizkiñan.

Su-mendi-aoa  
irakiten eukenan.  
Salda berotan burni arrotua,  
aguro goritu niñan.  
Ta ire poza ler zanean  
urruma-artean: "Biok bat!"  
intziri egin idanan.  
Gau aretan, ni gaiñeko ekaitz:  
i, azpiko lur-ikara.  
Noizbait nekeak atertu ziñan  
gure poz-enara.

Bizi guzian baiño geiago  
ikasi giñanan,  
Jaunari esker onak ematen  
gau pozgarri artan.





Gaur... Gure gazteena  
ezkondu zaigu.  
Gure maite-gela zai degu,  
eztaitarrak agurtuta.

Egun guziko jai-kezkaz,  
begiak astun zenitun  
etzan zeranean.

Agur Mari bat otoi baiño len,  
lo ziñan nere besotan.  
Nik, zure gorputz-altxorra  
nerekin dudala,  
griña-ekaitzik gabe,  
dut biotz-azala.

Gaur lo dituzu  
biotz-gaiñeko meta biak.  
Basa beltzeko leize-aoak,  
pakean ditu  
griña-salda itzaliak.  
Baretu ziran gure soin-pozak:  
baiña maitasuna,  
sakonago det gogoan:  
elduago aren muna.  
zure lo-arnasa entzunaz,

amak aurra bezin pakez,  
zure soin kuttuna igurtzika,  
ezin aspertu naiz maitez.  
Zure zimur bakoitza,  
zenbat lanen ume!  
Banan-banan laztan dizkitzut  
griñarik esnatu gabe.  
Emazte eldu, ama landu!  
nere biotz-muiñean,  
etziñudan onen sartua  
eztai-gau irakiñean.

Jaunari esker egiñaz, zu lo  
ziñala nere kolkoan,  
ames egin dut oean:  
guk bezelaxe  
alkar maiteko dutela  
zoriontsuak zeruan!!!

.....  
Nork zesaken, nere maite,  
gure eztai-gabean,  
gu biok noizbait  
onen paketsu gindezkeanik  
alkarren aldamenean!!!

Aldatu hiru olerkion azterketari ekin aurretik zenbait oharkizun metodologiko. Ezer baino lehen esan, literatur testuaren beraren azterketari ematen diogula hobespena eta azterketa semiotikoari atxekitzen gatzaiizkiola. Honen arabera, testuan gauzaturiko literatur mezuaren eta hau ekoizteko abiarazi diren kode ezberdinen arteko sartu-irtenak eta elkar-eraginak ezin ukatuzkoak dira ahobatez onartzen direnez.

Literatur kodeak —kode tekniko-literarioak, hots, estilistikoak, aktanzialak, tekniko-narratiboak— eta kode paraliterarioak, hots, tematiko eta ideologikoak elkarri hertsiki itsatsirik, elkarri eraginez eta elkarren eraginpean dira. Hain hertsiki ezen azken hauek ere haien bidez agertzen baitira, zuzenago edo zeharkago, eta testuan barrena aztarna ezberdinak uzten dituzte. Gero kode ezberdinen arteko hierarkiaz hitz egin ohi da.

Bada gagozkigunerako, hots, hiru olerkion interpretaziorako bestelako kodeen garrantzia eta autonomia ukatu gabe, esango nuke direlako kode guzti horietarik garrantzitsuenak tematikoa eta ideologikoa direla. Tema aldetik, gisa denez bestalde, hain zuzen geuk aurrez ezaugarri horren arabera hautatu ditugulako, hiru olerkiok oro har *erosa* dute ardatz eta zehatzago hirurek dute xehetasunez poetikoki deskribatzen sexu-iharduna. Gai hori jorratzeko abian jartzen dituzten kode literario ezberdinen azterketa aurreragorako utzirik ohar gakizkion kode ideologikoari:

### OIANONE

Neskatilak erraiten dau  
Eskerr onetan othoitz haur,  
Dantzularik llhargiak:

“Gora izan hadi, Suge,  
Hi haizenik ene Rege,  
Hi haizenik ene Jainko  
Gau huntan eta bethiko,  
Urrhe-buztaneko Suge!...”

### SUSAAK

... T'Erio gozoenak  
biak lotu ditu  
besarka illezkorrean  
Zeruaren Zeru!



## GRIÑEN LOA

Bizi guzian baiño geiago  
 ikasi giñanan,  
 Jaunari esker onak ematen  
 gau pozgarri artan.

Lehenbizikoan, Jon Miranderen nor poetikoak sexu-ihardunaren deskribapenaren ondotik neskatala lizunaren ahotan otoitz arneguzkoa paratzen digu Suge falikoa *Rege* eta *Jainko* eraikiz.

Salbatore Mitxelenaren nor poetikoak, erakarmen jarkiezi-nezkoaren ildoko sexu-ihardunaren ondotik *Erosen Thanatosen* gaineko garaipenaren bozkarioa kantatzen digu. Laburzurtean, *Erosa* zubi ilezkortasunerako.

Nemesio Etxanizen nor poetikoaren emaitzaren arabera beriz, Jainkoak bedeinkaturiko ezkontzaren barruan, sexu-irrika bera, Jainkoaren emaritzat eta dohain pozgarrientzat ageri zaigu, ordainetan, kristau-Jainkoaganako esker otoitzaz burutzen duela poema.

Lehenbizikoagatik nik uste, esan daitekeela euskal literatura erotizatzeke eta profanatzeko nahirik garbienaren adierazgarri ezin hobea dela.

Bigarreanean ere garbi dago kristau-moralak ezarri hesiak urratu nahia; baldin kristau-moral tradizionalaren arabera sexu-iharduna ezkontza barruan eta Jainkoarekin batean mundu honetara haurrak ekartzeko bide sakratua bada, hemen poetikoki ilezkortasunaren atalase bihurtu baitzaigu.<sup>2</sup>

Hirugarrena da dudarik gabe begiratuena kristau-moralarekiko baina halarik ere ohar bedi sexua —nahiz Jainkoak bedeinkaturiko ezkontza barruan izan—, Jainkoak mundu honetan goza dezagun jarria dugula poetikoki adieraztea eta muga ho-

(2) Puntu honetan sor liteke olerkia/olerkariaren arteko atxikimenduari buruzko polemikarik. Honetaz ari, Nemesio Etxanizek dio --Jakin 5, 1978, 99 or.-- S. Mitxelenak ideia aldizkari frantsez batetik hartu zuela eta hori euskaratzean gure elearen gaitasuna erakustea izan zuela xede. Gurekiko, S. Mitxelenaren intenzionalitateaz ahal dugun heinean ahaztu egingo gara.



rien baitan ezer lotsagarririk ez dagoela aldarrikatzea, duela berrogei urte, euskal eremuan eraberritzaile ezezik eskandalagarri ere bazela jasan behar izan zuen isilpeak, zentsurak frogatzen duenez.

Direlako bi kodeok, tematikoak —sexu-ihardunarena, berria euskal literaturan— eta ideologikoak, guztiz ere Kristautasunak mendeetan zehar finkatu eta gogortu dituen sexu- tabuak urratzen hasteko ahalegina gaingiroki marraztu ondoan eta berriro diogu: direlako kodeok adierazbidea aurkitu ahal izateko hizkuntza-kodeaz gain baliatzen dituzten literatur kode ezberdinen abstrakzio egin dugula, dagoeneko zenbait itaun egitera eta zenbait norabide metodologikoren beharraz kontzientzia hartze- ra bulkaratzen gaituzte.

Carlos Reisek adierazten du literatur temen eraikuntzan zerikusi handia jokatzen duten bi eragileetarik bat, temak *testupe*-ko<sup>3</sup> iraupena duten motiboekin duen menpekotasuna dela:

*"Hay que insistir en el relieve de que disfrutan, en el proceso de constitución de los temas literarios, dos factores: el primero es la dependencia del tema con relación al (o a los) motivo(s), en cuanto muelle impulsor de vigencia eminentemente subtextual y, por tanto, susceptible de explicación sociológica o psicoanalítica".*<sup>4</sup>

Guri doakigunez, aztertu gabe ezin dira gutietsi noski soziologiak eta psikoanalisiak eman diezazkiguketean argibideak, euskal literaturan sexu-iharduna deskribatzea ardatz duen literatur azpi-tema hau, zer dela eta eraikitzen den aldi-bitarte honetan esplikatzen entseiatzeko tenorean.

Soziologiari, orohar, gagozkiola: bukatu berri ziren bi gerak, Espainikoak zein mundukoak Mendebaldeko gizartean eragindako aldaketak ez ziratekeen erdeinagarriak. Batez ere, bizitza pribatuaz den bezainbatean, gisa honetan diote delako bizitza horren bilakaera aztertzea xede duten ikerlari batzu, XX.

(3) Ohar metodologikoei dagokienean, funtsean honi narraio: REIS, C.: Fundamentos y técnicas del análisis literario. Gredos. Madrid. 1981.

(4) REIS, C.: Aip. lib. 329 or.



mendean jazo den gertakari buruzagientzat daukatenaz: "*El acontecimiento principal en la vida privada de Occidente en estas últimas décadas es quizá la aparición de una erótica completamente extraña al sistema cultural judeo-cristiano*".<sup>5</sup>

Ildo beretik, aztergai ditugun hiru olerkietarik baten egileak, Nemesio Etxanizek, direlako gerra horiek sortarazitako aldaketarik guztien gaineratik moraltasunaren aldetikoa nabarmentzen zuen eta honen okerrerako bilakaeraren errua berariaz gerraondoan Hego Euskadin sorturiko giroari egozten zion.<sup>6</sup>

Gagozkigun esparruari atxikiago, literaturaren soziologiari kasu eman beharko genioke: batez ere, irakurketaren soziologiari eta orohar egile/irakurlearen arteko elkarrizketa komunikatiboari dagokionari. Beldur naiz azterketa horren emaitzarik nabarmenena ez ote litzatekeen izango komunikaziorik-eza, alegia literatur komunikazioaren ezintasuna garai hartan euskal literaturaren irakurle zirenen eta aztergai ditugun olerkion gisako autoreen obraren artean. Hauek jasandako zentsura, mota guztietarikoa ez al da horren adierazgarri.

Bestalde, aiputan ditugun hiru autoreok euren literatur obran barrena utzi dizkiguten aztarna psikologikoez, psikoanalitikoki aztergarri diren heinean argitasunik eskaini liezagukete. Testupekoek eman diezazkiguketen argibideez gain testu-aurrekoak ere aipatu beharrekoak iruditzen zaizkigu; gure kasuan, olerki-aurreko eragile behinenean artean dato biografikoez, mekanizismoan erori gabe eta beti ere olerkion balio estetikoak eta literatur izaera bereziari makurtzekotan, lagungarri zaizkigula deritzat.

Jon Miranderen jatorri zuberotarra, haren paganotasun oso gaztedanikoa, bizitza paristarra bera. Salvatore Mitxelenaz, isilik gelditzekoa ez zela, fede-kontuan eta haragi-irrika gaietan argibide hobeak asmatu nahirik zebilela esaten digu Nemesio Etxanizek.<sup>7</sup> Luis Villasantek ere haren izaera bereziaren berri

(5) ARIES P., DUBY G.: Historia de la vida privada. Taurus. Madrid. 1989. 353 or.

(6) Badut tesina bat burutua oraindik argitaragabea. Nemesio Etxanizen aipamena bestelako irozzaririk gabe egiten dudanean, adi bedi azterketa horren emaitza dela.



emana digu.<sup>8</sup> Nemesio Etxanizek berak ere asko sofritu beharra izan zuen sexu-grinari zegokionean oso giro itoan eta hertsitzai-lean bizitzea suertatu zitzaiolako. Are gehiago bere apaiz izae-ragatik. Bere obran errekkurrentea den tema honek sustrai biografiko argiak ditu.

Alabaina, hasiera-hasieratik adierazi dugunez, gure ikus-puntu metodologikoa semiotikoa da eta honen ildotik testupeko eta testu-aurrekoen gaintetik lehentasuna testuaren beraren azterketari aitortzen diogu. Ildo honetarik, etekintsuago deritzogu literatur obra interpretatzen lagun diezagukeen testuartekotasu-naren printzipioari hobespena emateari eta gure ekarpentxoia il-do horretarik egitea. Hau ez da inondik ere osoa izango eta dudarik gabe ondoko azterketen beharrean geratuko da:

*“La ideología no solamente se puede encuadrar en el ámbito operatorio de la semiótica, sino que también (...) se ajusta a un principio de base del ámbito citado: el principio (...) de la intertextualidad, de acuerdo con el cual la expresión discursiva del mensaje literario es susceptible de ser relacionada con otros múltiples mensajes, no forzosamente literarios”.*<sup>9</sup>

Orduko kultur aldizkarietan izandako eztabaidei edukiko diegu begia. Olerkiok idatziak izan zireneko garaian bi eztabai-da nagusitu ziren elkarren jarraian eta biei ohartuko gatzazkie beti ere, berariaz, aztergai ditugun olerkion zentzua argitzen la-gun diezagukeenari ohartzuz.

## GERRAONDOKO EUSKAL KULTURGINTZA

*1951 eta 1952ko eztabaidak:*

*Lapurtera klasikoa eta olerki erotikoak*

50eko hamarkadan sartu orduko adin ezberdineko euskal idazleak denboran erreskadan gertatzen diren bi eztabaidatan nahaspilatuak ohartzen ditugu euskalgintzari, kultur eta literar-

(7) Nemesio Etxanizen paperen artean. Ez dut uste argitara zenik.

(8) VILLASANTE, L.: "Salbatore Mitxelenaren persona" in S. MITXELENA: Lan guz-tiak. Jakin. Oñati. 1977. XI-XVI orr.

(9) REIS, C.: Aip. lib. 337 orr.



turgintzari nola susperraldia eman ebatzi beharrez. Honako bi auziok dira gailen: euskara kultur hizkuntza nola bihurtu eta euskal literaturari esparru berrietan nola sarrera eman kristau moral estuak ezarri hesiak urratu.

Espainiako gerrate eta bigarren mundu gerraren ondotik, Hegoaldeari gagozkiola, gerraurrean susperturiko kultur mugimendua desegina dago —*Euskaltzaleakena*—, batzu erbestean beste batzu desagertuak baina euskaltzale kontzientziatuenen bizi nahiak mugimendu eta idazle-talde berriak ere sortaraziak ditu. Iparraldeko idazleak eta Hegoaldekoak, Espainiako gerra bizi izan dutenak eta ez dutenak, gazteagoak eta zaharxeagoak, hazibide klerikalekoak eta hazibide laikoagokoak elkarretaratuak dira ordurako hango eta hemengo elkarguneetan.

Gure azterlanerako axola handieneko direnei gaingiroki kasu emanez, talde bat alabarrez Donibane Lohitzunen suertatzen dela dakusagu. Bilgune honetan eta 1944ean *Gernika Elkargoa* sortu ondotik J. Fagoaga zuzendari dela *Gernika* argitaratzen dute; handik hurbil lekuz behinik behin Aita Lafitte eta, *Herrian* eta *Gure Herria* aldizkarietan argitaratzen dituztela euren euskal lanak. Beste batzu Parisen kokatu dira hangoekin elkartuz —oroit, gagozkion garaian, batez ere Andima Ibiñagabeitia, Jon Mirande eta Peillen anaiak. Jokin Zaitegi bere aldetik Guatemalan da, —lehenbizikoan bera bakarrik harik eta 1951an Ameriketara zebilen Orixe beretzen duen arte—, *Euzko-Gogoa* euskara hutsezko lehen kultur aldizkaria etenik gabe atera nahiz. Ameriketara erresuma ezberdinetan beste hainbat euskaltzale barreiatuak zenbait aldizkari elebidun burutzen.

Hegoaldean geratu direnen artean talde bat Bilbon ari da *Athèneu Berria* zeritzan kultur elkartearen baitan, euskara hutsen kulturgintzan, besteak beste filosofiako testuak eta euskaratzen Federiko Krutwig buru dutela;<sup>10</sup> beste talde bat berriz Gipuzkoako probintzian: Donostian mordoska bat: *Egan* bultzatu nahian banaka batzuk —Koldo Mitxelenak argitara emana du

(10) Ikus KRUTWIG, F.: "Hitzaldi bat eta bere aurrehistoria" in *Egan* 5-6, 1986, 11-37 orr.



*Euskal Literaturaren etorkizuna*— eta gutiz gehienak *Eganekiko* susmoz bezainbat *Euzko-Gogoarekiko* onginahiez; Arantzazuko Santutegia ere leku giltzarria da gagozkion garaian —oroit, Salvatore Mitxelenaren Arantzazuri buruzko bi liburuak—, doakigunerako guztiz ere Aita Villasante eta Aita Omaetxebarria.

Aldi-bitarte honetan Hegoaldeko kultur erresistentziak, Estatu nahiz Elizaren hierarkiaren aldetik erabateko erasopean, ez du deserrikoak —badakit deserri kontzeptua oso zehazgabea dela baina adierazi nahi dudanerako aski deritzat— baino axola handiagoa. Frankoan oso nekeza gertatzen da ezer argitaratzea eta artean *Egan* ahul da, orrialde guttitakoa; giro hertsigarraren adierazgarri ona da Euskaltzaindiaren beraren aldizkari ofiziala *Eusker*a artean debekupean izatea.

Erabat harturik, euskal idazle gutti eta apur hauek mugez haraindi eta honaindi barreiu. Baldintza hauetan, jendaurreko edo buruz buruko iritzi trukaketarako eragozpenak eskergak dira eta elkarri eginiko gutun ireki, erdi-ireki eta are pribatuek ere ezohizko pisua beretzen dute.

Aztergai izango ditugun eztabaidetarik lehena, Federiko Krutwigek eraikitzen du *Gernikan*. Ozenki euskara kultur hizkuntza mailara jasotzeko premia larria eta ezin-presazkoagoa aldarrikatzen du, non eta landu eskasez heriotzeari buruz amil dadin nahi ez bada. Horretarako ezinbestekotzat jotzen du literatura euskara batua eta hau gauzatzeko eredutzat lapurtera klasikoa hautatzen. Euskal idazle bazterrak sostean harrotzen ditu.

Aita Villasantek bat egingo du Krutwig jaunaren tesiarekin. Laster ordea, Santutegian bertan jarkiko zaio Aita Omaetxebarria; honi ihardesten dionean Justo Mokoroak egingo dio aurre gutun erdi-irekiaz. Aldi beretsuan, Federiko Krutwig, Villasanteren Euskaltzaindi-sarrera dela bide egindako hitzaldiagatik, auziperatua izaten da eta lehenbizi Iparraldera eta gero Parisera egiten du ihes 1952an. Han Jon Mirande biltzen du lapurtera klasikorako eta aurrerago Andima Ibiñagabeitiak, Orixek eta A.M. Labayenek, euren Lapurtera Klasikoaren kontrako jarrerak ematen dituzte aditzera, hurrenez hurren, lehen biak *Gernikan*,



hirugarrenak berriz *Eganen* eta *Euzko-Gogoan*. Horra denak hikamika aldizkariak bitarteko.

Guztira eztabaida hau bide, 100 bat orri idazten dira. Gehientsuenak gipuzkera osotuz jarraitzen dute euren sail propioak jorratzen eta banaka batzuk, guztiz ere F. Krutwig, Aita Villasante eta Jon Mirandek, lapurtera klasikoa erabiliz zenbait kultur lan burutzen dituzte. Segurki, iritzi- ezberdintasunak gorabehera, eztabaidan aritu guztiak elkartzeko zituzten eragozpen itzelek ez zieten mesede handirik egiten euren ezadostasunak adostasun bihurtzen entseiatzeko.

Besteri gagozkiola, direlako orriok irakurri ondoren ezer garbi geratzen bada ondoko hau da: gerraurreko egoera arras bestelakotua dela eta handik hara jadanik ezina izango dela gerraurrean bezala jokatzeari politikan ezezik, hori aurretik ere garbi baino garbiago baitzegoen, ez eta kulturari eta ez literaturari ere.

Bi eztabaidotan barrena eta orduko zenbait praktikatan soma daitekeenez —somatu gehiago frogatu baino azterketa eskasez—, egun bizi ditugun hainbat joera eta norabideren hasikinak, ernamuinak nabarmen atzeman litezke. Orduan oso guttiren artean trukaturiko ikusmoldeetan plazaraturiko auziak, aurrerago finkatu eta gauzatuko ziren kasurik onenean baina gaurregun bertan ere bizi dugun egoera eta aldia, euskal kultura eta literaturari doakionean harako haren oinordeko da eskerki.

Lehenbiziko eztabaida horren ondotik berehala etorriko da bigarrena. Honako honetan Andima Ibiñagabeitia izango da auzia eraikitzen duena, hain zuzen Pariseko *Euzko-Deyan*. Funtsen zioen euskara ideologia eta kristau-moralaz hertsikiegi estekatua ibili izan dela mendeetan zehar eta aberri batean ideologia eta moral ezberdineko jendea dagoen bezala, kulturari eta literaturari ere gisa dela denetik egotea. Zabaldurik behar honetan liburu lizunak ere aipatzen zituen eta hori izan zen batez ere eztabaidarako aitzakia.

Eztabaida guztia Pariseko *Euzko-Deyatik* bideratu zen. *Abandotarrak* berehalakoan erantzun zion. Ondoren Jon Miran-



de, Nemesio Etxaniz, Aita Lafitte, berriro Nemesio Etxaniz eta azkenik Andimak berak eman zion buru eztabaidari. Eztabaida honen aurretik zegoeneko Jon Mirandek profanatua zuen erotismoaren bidetik euskal ideologia nagusiaren harroina: fede eta moral *judu-kristaua* Miranderen ikuspegian. Andima Ibiñagabeitiak itzulia zuen oraindik argitaratzeke den Ovidioren *Ars Amandi*; Salvatore Mitxelenak idatziak zituen hiruzpalau olerki erotiko eta epikureoak; azkenik, Nemesio Etxanizek ere aurki ekingo zion olerki erotikoak ontzeari. Eztabaida hau ez zen beraz teoriaren eremu aratz soilera mugatu, praktika baten ondorio zen eta praktika baterako atalase.

Lehenbiziko eztabaida ezagunagoa dateke, halere ez dut uste alfer-lana denik polemika horri ohartzea, are gutiago berez izan lezakeen balioaz gain bigarrena hobeki aditzen lagunduko digula kontutan izanik.

## LAPURTERA KLASIKOA

Gerraondoko urteak dira. Euskara atzeraka nabarmen. Urte beltzak gure hizkuntzarentzat. Denok dakizkigun baldintza deitoragarriak, debekua debekua ondotik. Alabaina, hizkuntzaz landako eragozpenak zein ere handiak diren, eta jakina hauek ukatu gabe, badira bi gazte eskolatu, bata laikoa Federiko Krutwig eta bestea fraile frantziskotarra Aita Villasante kanpo-eragozpenak aitorturik ere, hizkuntzaren barne-eragozpenak ikertzen eta harrotzen dituztenak. Harako Unamuno aipatuak 50 urte lehenago Bilbon esanak arbuigarriak bezainbat —arbuigarriak arazoaz jabeturik ere honi irtenbidea aurkitu ordez euskara hiltzen uztea proposatu zuelako— aintzat hartzekoak direla uste dutenak.

Aipatu biok, ozenki aldarrikatzen dute giza-maila landuak bildu beharra euskararentzat hau biziko bada. Baieztatzen dutenez, ordurainokoa bereizi eta banatuak ibiliak dira kultur gaiak eta euskara, eskolatuak eta gure elea. Banaketa hori baze bihurtu beharra dago, hautatuak, gizarte maila jantzienak irabazi beharra, bestela herria ere arras galduko baita honek



gora egin nahi duenez, goikoari begiratzen eta jarraitzen diolako. Gizarteak azken mende erdian hainbat alorretan egin duen aurrerapena, gizarte modernoak bere bilakaeran landu duen eta lantzen ari den kulturaz jabetu beharra dugu noraezean. Honetaraz gero, nagusiki kultur lanak burutu behar dira.

Ikuskera honekin hagitz bat zetorrenetarik bat Jon Mirandek zen. Andima Ibiñagabeitiari zuzenduriko gutun batean gisa honetan laburbiltzen zion bere irizpidea: "*Oroz lehen, batarzuna beharr dugu. Gero egiazko kultur-lanak idatzi, eta hortakotz 'baserriarrismu' madarikatua euskal idazkuntzatik bethikotz kherdu*" (1953-1-17). Egiazko kultur-lanak idazteko literatur euskara batzearen premia gailentzen zen.

Federiko Krutwig gerraondoan berehala hasi zen Euskaltzaindiarentzako lanean. 1942an urgazle izendatu zuten eta 1947an euskaltzain oso. *Gernika* kazetan adierazi zuenez,<sup>11</sup> 1941erako emana zioten Euskaltzaindi zaharra eraberritu eta suspertzeko txostena prestatzeko agindua. Delako txosten hau 1949an aurkeztu zuen eta berehalakoan izan zituen kritika gorrak.

Orixek, besteak beste, Euskaltzaindi berriaren legezkotasuna auzitan jartzen zuen, horrezaz gain "*aurkeriak utzirik, mintza ditezela euskeraz, idatzi dezatela euskeraz*"<sup>12</sup> adierazten zuen. *Euzko-Gogoako* bulkatzaile nagusienek hasiera-hasieratik gerraondoan eratu edo eraberritu zen Euskaltzaindiaren oso kontrako agertu ziren; hain kontra ezen ordu hartan euskaltzain oso zirenen ordezkotzarako beste izen batzu ere izendatu baitzituzten. Bestalde delako erakunde honek, jakina denez, 1956 arte ez zuen *Euskera* agerkaririk kaleratu. Susmo txarrez beteriko giro honetan polemika irazeki zuena F. Krutwigek *Gernikan* argitaratu artikulua, "*Euskara Euskaljerriaren Kultur-Bidea ledin izan*" zeritzana izan zen.

Bertan, F. Krutwigek R.M. Azkuek gerraurrean proposaturi-

(11) KRUTWIG, F.: "Sobre la reorganización de la Academia de la Lengua Vasca" in *Gernika* 22 14, 1951, 8-11 orr.

(12) ORIXE: "Euskaltzaindi zarra eraberritzea" in *Euzko Gogo*a 7-8, 1950.



ko gipuzkera osotua zuzenki ez zuen aipatzen, segurki aintzakotzat hartu ez zuenaren adierazgarri. Koldo Elizaldekin eginiko adierazpenetan oin hartuz literatur euskararen batasunerako lapurtera klasikoa proposatzen zuen, hain zuzen idatziz tradizio rik handiena izan duelako:

*"Halakotz euskararen batarzuna eratzekotz, gehien irasten den hizkalkia on harrtu beharr dugu, ez gehien mintzatzen datekena, literatua (sic) hizkuntza batuak, lehenez irakhurtzekotz baitira".*<sup>13</sup>

Kultur terminoen ortografiari buruz berriz, hauek ahalik gutien aldatzea proposatzen zuen kultur hitzek badutelako *physiognomoni berezina*.

Eztabaida eraikia zegoen. Aita Villasantekin erabat beretu zuen F. Krutwigen proposamena, nola bere filosofiari zegokionez hala kultur terminoak idazteko 6 arau praktikoei zihoakionez.<sup>14</sup> Erabat beretzeaz gain zabalkundea ere eman zion *Cantabria Franciscana* aldizkariak baliatuz eta luze baino lehen izan zuen ihardespina kazeta berean Aita Omaetxebarriaren eskutik, oso izenburu deigarriaz "*¿Esperanto o vascuence?*".<sup>15</sup>

Honek erabat harturik, hautatu ikuspuntua onartzen bazion ere, soluzioetan ez zetorkion bat. Honen ustez, euskara kultur terminoen onarpen bereizgabeaz esperanto bihurtzekotan, suntsitze bidea hartuko zukeen gaztelaniaren eraso basatiaren aurrean. Literatura ederra lantzea axola handiagoko esten zuen:

*"La vida del euskera depende, por lo mismo, más de la bella literatura que de la admisión incontrolada de términos extraños. Hay cosas en vascuence que no pueden traducirse perfectamente al castellano... No sólo las obras de Lizardi u*

(13) KRUTWIG, F.: "Euskara Euskalerraren Kultur-Bidea ledin izan" in *Gernika* 14, 1951, 8-11 orr.

(14) VILLASANTE, L.: "En torno al problema del vascuence" in *Cantabria Franciscana* 8, 1951, 40-54 orr. Liburuskan ere bada. Ikus 23. oharra.

(15) OMAETXEBARRIA: "¿Esperanto o vascuence?" in *Cantabria Franciscana* 9, 132-139 orr.



*Orixe, sino aun Garoa y Kresala, por ejemplo, sólo en euskera se aprecian plenamente*" (Ibid.).

Justo Mokoroa ere kontra oldartu zitzaion, Andima Ibiñagabeitiak esatera, eskutik eskura ibili zen gutun erdi-ireki luze batez. Hau, aurrerago luzazkiago aztertuko dugunez, gerraurrean agertu zuen tesiari zerraion, premiazkoena gehiengoarentzako literatura lantzea zelakoari.

Orixek bere aldetik, Aita Omaetxebarria eta J. Mokoroaren ikusmolde orokorrak onartzeaz bat kultur terminoak lau sailetan bereizten zituen "1) *necesarios*, 2) *convenientes*, 3) *pedantes*, 4) *bárbaros*".<sup>16</sup> Funtsean, *Campiónen* irizpideari bere atxikimendu erabatekoa aditzera emanez, honako printzipioa ezartzen zuen: euskarak berak elkarketaren bidez beharrezkoa datekeen kultur terminoren bat sortzerik ez duenean soilik da zilegi ezinbestean kanpokoez baliatzea baina beti ere besterik ezinean. Hots, literatur euskarari buruz R.M. Azkuek proposatu zuen Gipuzkera osotuaren aldeko jarrera kultur terminoei aplikatua.

A.M. Labayenek eta Andima Ibiñagabeitiak ere gipuzkera osotuaren bidez ikusten zuten egingarri guztiek ahobatez onartzen zuten batasunaren beharra. Lehenbizikoak, Aita Omaetxebarriari arrazoi osoa emateaz gainera gorago Orixeri jaso diogun irizpidea beste hitz batzuez ematen zuen aditzera. Horrezaz gain F. Krutwig eta gogaideen irizpideek zer-nolako praktika eta emaitza ekarriko zituzten ikuskizun zegoela, baieztapen erabatekoa jaulkitzen zuen: "*Orain berrogei urtetik onuntz euskeraz beñere baño obeto eta geiago idatzi izan dala*".<sup>17</sup> Esanez bezala, tradizio on horri jarraiki konponduko dira kultur terminoen arazoak ere.

Andima Ibiñagabeitiak ere gipuzkera osotua hobesteko arrazoi beretsuak ematen zituen. Gerraurrean burutu zen eztabaidaren ondotik hala hautatua izan zela eta "*Azkue, Olabide, Orixe, Zaitegi, Altube, orañarte izan ditugun idazle jator eta az-*

(16) ORIXE: "Cultismos, pedantería, barbarie" in *Gernika* 22, 1953, 14-16 orr.

(17) ASPALDIKO: "Euskararen batasuna" in *Egan* 1, 1952, 9- 11 orr.



*karrenak, bide ortatik oldartu zitzaizkigun*"<sup>18</sup> idazle hoberenek hartutako aldera makurtzea zela egokiena.

F. Krutwig eta L. Villasantek Aita Omaetxebarriaren artikuluari beste batekin —bien artean egindakotzat har liteke, L. Villasantek bere gogaidearen gutun-zati ugari tartekatzen dituelako— erantzun zioten.<sup>19</sup> Hizkuntza herrikoia eta hizkuntza teknikoa behin eta berriz tamalgarriro nahastea egozten zioten. Hizkuntza herrikoiak berezko dituen balio hunkigarri eta bitxiak erdeinatu gabe erremintaren praktikotasuna, egungo norbakoaren premietara egokituriko elea izatea jotzen zuten no-raezeko:

*"Por muchos encantos que tenga la lengua tal como se da, con sus variedades y pintoresquismos, objeto de estudio e interés para el lingüista, el costumbrista, el folklorista, etc., cosa muy distinta es la lengua literaria, unificada y normalizada, instrumento necesario para que una lengua llegue a ser vehículo de una cultura digna de este nombre"* (Ibid.).

Berezkotasunari, herriaren ahotik berez jaulkitzen denari askok zioten gurtzari gaingitu beharra zeritzoten, erabaki jakinak eta zehatzak hartzeko eragozkarri zen neurrian. Kultur hiztegia goitik behera ezartzen zela zioten: *"La introducción del vocabulario cultural se hace en todas las lenguas de arriba abajo, por los cultos no por el pueblo, y se ajusta a normas peculiares, establecidas por ellos"* (Ibid.).

Literatura/Kultur lanak kontrakotasunari buruz berriz:

"Se debe conservar al pueblo lector euskaldun y acostumbrarle a leer en su lengua de forma que esta le dé lo que necesita. Una vez atendida a esta necesidad práctica, el lector vasco, cuando sienta necesidad de solazarse en la lectura (hay mucha gente que nunca la siente) echará mano asimismo del euskara como lengua en la que se haya escrito bella literatura,

(18) IBIÑAGABEITIA, A.: "Kultur-Bidean" in *Gernika* 21, 1952, 262 orr.

(19) VILLASANTE, L.: "Aclaraciones a ¿'Esperanto o vascuence'?" in *Cantabria Franciscana*, vol. VII, 1952, 55- 66 orr.



pero si por necesidades prácticas está desvasquizado, no se valdrá en tal ocasión tampoco del euskara" (Ibid.).

J.E. Iranzo-k, Gernikan argitaratu bi artikulutan,<sup>20</sup> F. Krutwigek eta L. Villasantek hartutako biderei on zeritzola agertu zuen. Jon Mirande ere lapurtera klasikoz hasi zen idazten eta Gernika lapurtera klasikoz nahiz gipuzkera osotuz idatzi artikuluen bilgune bilakatu zen, harik eta 1953an azken alea argitara zuen arte. Bestalde, José de Zuazo sinatzen zuenak "La anarquía en el euskera"<sup>21</sup> argitara zuen bikoiztasun hau gaitzetsiz eta deitoratuz.

## 1. Kultur-lanak/Gehiengoarentzako literatura

Aita Villasantek gisa honetan azaltzen digu orduko euskaltzale askoren iritzia:

*"A veces se oye expresar a religiosos vasquistas y bien intencionados... 'Nuestro primer problema es vivir. Lo urgente, lo único que por ahora interesa es producir libros y folletos de tipo popular para alimentar y sostener el euskera de las masas populares. Eso de crear cultura es un lujo a que por ahora no podemos permitirnos aspirar. Los que piensan en estas cosas no se dan cuenta de que nuestro primero y único problema es salvar la misma vida de la lengua, gravemente amenazada'. Amigo interlocutor, todos estamos de acuerdo en que nuestro gran problema es vivir; de lo que aquí se trata es a ver si para conseguir tal fin el medio más eficaz es el de dar a las masas populares una literatura de tipo vulgar, o más bien (sin excluir ese medio) intentar ganar para nuestra lengua a los selectos de nuestra sociedad creando una cultura vasca capaz de atraer la atención y el interés de éstos".<sup>22</sup>*

Zein dira bada herri mailako liburu eta liburuskak ontzeari hobespena ematen dioten euskaltzale horiek? Zaharragoak, ge-

(20) IRANZO, J. E.: "Unamuno y el vascuence" (I) eta (II) in *Gernika* 18, 1952, 29-31 orr., eta *Gernika* 20, 1952, 177-180 orr.

(21) ZUAZO, J.: "La anarquía en el Euskera" in *Gernika* 21, 1952, 262 orr.

(22) VILLASANTE, L.: "En torno al problema del vascuence (Pro manuscripto)", Santuario de Aránzazu, 1951, 6-7 orr.



rra bizi izan dutenak? Euzko-Gogoa bultzatzen dutenak? Zer pisu dute batzuek eta besteek?

Jakina denez, *Euzko-Gogoaren* helburua hasiera-hasieratik euskara hutsean lehen kultur aldizkaria sortzea izan zen.<sup>23</sup> Jokin Zaitegik, Andima Ibiñagabeitiak eta Orixek "herri" batez ere eskolatua eta jantzia zuten xede. Orixerentzat delako herri hori: Ehun apaiz, berrehun fraile eta berrogeita hamar galtzadun, ikasi samar horietakoek osatzen zuten;<sup>24</sup> horien jakin gosea asetzea helburu, herri xumeagoa ahaztu gabe. Andima Ibiñagabeitiak ere ildo beretik:

*"Guziek erribidetik soilki asiko bagiña, ez genuke inoiz ere euskera oraingo ateka gogor ontatik atera al izango. Euskera, erriarena bezin bat ikasiena ere bada!"*<sup>25</sup>

Gero, honetaz ari, oroit Orixeren garai hartako 250-300 horiek bazkatzeaz gainera etorkizuneko Euskal Unibertsitaterako langaiak prestatuz joatea ere bazutela xede, *Euzko-Gogoaren* sustatzaile nagusienak. Jakina da Loiolan josulagunetan ikasle zirela, besteak beste, Jokin Zaitegik Andima Ibiñagabeitiarekin batean literatura grekolatinoa euskaratzeko asmoa hartu zutela eta horri jarraiki zitzaizkiola gerraondoan ere.

Kultur gaiak jorratu beharraren aldetik beraz, hauek L. Villasanteren irizpidetik hurbilago zeuden eta gorago aldatu aipuan hark zenbait euskaltzaleri egozten zizkion asmoak eta burubi-deak ez zihoazkien erabat harturik behinik-behin.

Oker ez bagaude, guztiz ere Hegoaldean zeuden euskaltzale batzuri zihoazkien, hauen ikusmoldea *Justo Mokoroak* gerraurrean bere *Genio y lengua* ezarritakotik eratorria zela. Hark gerraurrean aipatu liburuan frogatzen entseiatu zenez, euskarak, bizitza modernoak ezartzen zion atakatik airoski ateratzeko ezinbestekoa zuen herri zabalaren eskea gogobeteko zuen literatura ekoiztea. Literatura hitzaz, idazki guztiak aditu behar da zein ere nahi bitarteko darabiltelarik ere, hots, egunkariak, irra-

(23) INTXAUSTI, J.: "Zaitegi eta 'Euzko-Gogoa' (I) eta (II) in *Jakin* 12, 1979, 120-137 orr., eta *Jakin* 13, 1980, 96-119 orr.

(24) ORIXE: "Erria, Erria!" in *Euzko-Gogoa*, I-II, 1951, 10-12 orr.

(25) IBIÑABEITIA, A.: "Anai Berri" (Editoriala), *Euzko-Gogoa* 3-4, 1955.



tia, antzerkia, liburuak, eskola, etab. Hau gerraurrean hala baze gerraondoa ere halaxe zen, nahiz liburua argitara zenetik 17 urtetara "desquiciamiento étnico, social y moral de Euskalerrria"<sup>26</sup> zeritzana jazo zela erizten zion:

*"Pero mientras su providencia no nos muestre otro camino, y mientras sea verdadero el fundamento doctrinal en que aquella solución se apoyaba, aquella seguirá siendo ..., la única solución verdadera del 'Problema del Vascuence'" (Ibid.), beraz, aurreko usteari eusten zion.*

Hego Euskadin zeuden beste euskaltzale porrokatu batzu ere hala uste zuten. Kanpo-eragozpenek, hots, politikoez zuten pisu larria euren haragian pairatzen zuten eta ez zuten uste nagusiki industria-gizonak, burgesia, kleroa, erdi mailako klase sozialak asebeteko zituen kultur gaiak zirenik, egoerak premiaz eskatzen zuen egitekoa euskara salbabidean jartzeko. Besteak beste, Nemesio Etzanizek, Jon Garmendia Zeletak hala uste zuten eta A.M. Labayenen euskarari mugak ezartzearena ere nik uste, testuinguru honetan aditu beharrekoa dela:

*"Gure indar eta almenak neurtu gabe geiegi eskatzea kaltegarri litzaziguke agian. Apaltxo irauongo bagenu ere pozik. Gure literatura 'quadrivium' otan sartuko nuke: 1<sup>o</sup>) Kristau-ikasbide ta erlisioa. 2<sup>o</sup>) Erri-Jakintza (ipui, kanta, komeri, bertso ta eleberrri). 3<sup>o</sup>) Gauzen ikaskizunak. 4<sup>o</sup>) Szientzi Matematikaren apur eta oñarriak, astapenak alegia".<sup>27</sup>*

Ikusbide honen kariaz, tirabirarik izan zuten euren artean

(26) IBAR (P. Mokoroa): 2 Carta semi-abierta al P. L. Villasante, Madrid, 17-4-1952.

(27) ASPALDIKO (A. M. Labayen): "Euskeraren batasuna" in *Euzko-Ggoa* 9-10, 1954, 154-155 orr. Gai honetaz, ikus ZUAZO, K.: "Euskararen batasunaz gogoeta zenbait" in *Jakin* 49, 1988, 99-122 orr. Koldo Zuazok, euskarak batasun bidean iragan dituen aldi historikoez ari, A. M. Labayen (*Aspaldiko* izengoitiz) eta Orixeri ere, ideologia asimilatzailearen sokakoak erizten die, hots, goraxeago aipatu dituen R. Menéndez Pidal eta Unamunoren pentsamolde beretsuko. Egia da A. M. Labayen "Teologi goitar. Kimika ta antzekoak ikasteko beti jo bearko dugu erderara" (gorago aipatu artikuluan) baieztapenak bulkarazten duela bat ustebide horretara baina horren ondoan berehala ematen du mugaketa hori taktikoa dela "Gure indar eta almenak neurtu gabe geiegi eskatzea kaltegarri litzaziguke agian". Nik uste, direlako autore horiek berezi egin beharko liratekeela, hots, katea berbereko mailak ez direla.



ideologia abertzalez, hazibide klerikalez eta are adinez ere kideko ziren Orixek, Jokin Zaitegi eta Andima Ibiñagabeitiak alde batetik, eta A.M. Labayen, Nemesio Etxaniz, Justo Mokoroa, eta Jon Garmendiak, besteak beste, bestetik. Euskaditik kanpo eta barne zeudenen artean hain zuzen.

## 2. Kulturaz iritzi ezberdinak

Oraintsu aipatu ditugun idazleak banatuak zeudela adierazi dugu kultur lanak burutu ala saldoarentzako literatura landu, hautabidearen aurrean. Alabaina, "kultura" hitzaz aditzen zutenari zegokionez elkartuxe zeudela esango nuke. Aldiz, L. Villasantek eta Justo Mokoroak iritzi eta sentikortasun ezberdinak zituzten. Orixek ere bai; honek adigaia ezezik hitza bera ere ez zuen onartzen, honi latin endekatua baitzeritzon.

Fraile frantziskotarrak euskarari —kulturbide izateko landugabe zegoelako— ezdeusa erizten zion gizarteko egiteko apaletarako izan ezean; hauen maila ez ahal zen den guttienik jasotzen, erdarara igarotzeko joera nabarmena sumatzen zuen nola hizlari hala entzuleen aldetik. Erlijiozko predikutzari zihokiola:

*"Es evidente a cualquiera que la predicación euskérica se desenvuelve siempre dentro de un campo de cosas comunes y corrientes, mientras que la castellana abarca una gama variadísima desde lo más llano y popular hasta los temas un tanto elevados de divulgación teológica, exposición docta etc. Y así, a veces a la misma gente se le oye expresar su preferencia por la predicación castellana, porque —dicen— en castellano se explican mejor las cosas, se entienden más fácilmente, se tratan temas más interesantes etc. En el ministerio sacerdotal sólo se echa mano del vascuence cuando hay que dirigirse a personas que no saben otra cosa, y apenas se les da en dicha lengua más que una catequesis, por así decir, elemental".<sup>28</sup>*

Justo Mokoroak ihardesten zion hizkuntzaren gaitasuna ez dela nahasi behar predikariaren trebetasunaz. Jendearen na-

(28) VILLASANTE, L.: Aip. liburuskari, 7 orr.



hiagotasunak eta hobespenak jakiteko gizarte-giro eta bide egokirik ez zegoela eta sarri-askotan eliztarrek predikarien gurariak onetsi beharrean izaten zirela gogoz bestera bazen ere. Baina horrezaz gain doakigunerako axola handiagokoa dena, beste apaiz baten lekukotasuna ekarriz osteratzen zion ez dela urrea distiratzten duen guztia, herria eta izpiritu gidariak elkarrengandik hurbil ibiltzeak bazuela bestek ez bezalako bikaintasun eta egokitasunik:

*“La lengua vasca nos ha preservado de convertirnos en esos caciques de la inteligencia a los que un poco de ciencia alejó del pueblo sin que un suplemento del saber los acercara otra vez a su raza... No saben los sacerdotes vascos cuan grande es su dicha al tener que expresarse en palabras a las que no cabe trasladar las distinciones, muchas veces caducas y siempre demasiado sutiles, de sistemas construidos muy lejos de la mentalidad popular”.*<sup>29</sup>

Abstrakzio maila bereko elez edo hobeki esan, hizkuntza zehatz beretsuan mintzatzen direla gidariak eta gidatuak Euskal Herrian ez da kristau ghetorik:

*“un pueblo cristiano, una cristiandad... ondoko tesiarekin buru emateko: “Quien acepta un resquebrajamiento de los pilares lingüísticos, acepta un resquebrajamiento de los pilares culturales. Y quien admite la quiebra de estos admite la de las estructuras religiosas” (Ibid.).*

Hots: Hizkuntza-Kultura-Erlijioa hirukia. Gutun erdi-ireki honi erantzun laburra eman zion L. Villasantek gutun erdi-pribatu baten bidez.<sup>30</sup> Laburzurtean ziotson frogatu baino frogatuago dagoela hizkuntzek batak bestearekin dagiten borrokan eragin erabakiorra duela kulturak eta alegia bat aipatzen zion, mahats-aleak ezin atzeman zitzakeen azeriak bere ezina estaltzeko nahi ez zuenaren iduria egiten zuenarena. Bera bezalatsu uste zutenak ere aipatzen zizkion, besteak beste, Iranzo Jauna,<sup>31</sup> Azaola jauna, Campión eta Julio Urquijo zirenena ere bai. Onartzen

(29) MOKOROA, J.: Aip. gutun erdi-irekia, 17 orr.

(30) Erdi-pribatua diot A. Ibiñagabeitiaren paperetan aurkitu dudalako.

(31) Ikus 20. oharra.



zion herri-literatura, apezteria herriarekin bat eginik aintzat hartzeko indarra zela baina kulturaren beharra ere berresten zion. Eztabaida goritu zuen artikuluan luzazkiago azaltzen zuen honetikiko gorabehera:

*“...el adelanto industrial, la facilidad de comunicaciones y las diferentes condiciones de vida que el progreso ha impuesto, están transformando profundamente la fisonomía de nuestro pueblo y en la crisis consiguiente todos nuestros auténticos valores pueden perderse. Nuestra lengua, nuestra clásica religiosidad, la moralidad de las costumbres, todo puede irse por la borda. Si se quiere que el pueblo vasco siga siendo religioso, sólo podrá conseguirse a base de una formación e instrucción mucho más honda, sólida y profunda que antaño, adaptada a las nuevas exigencias y condiciones de la hora presente; y si queremos que junto con la religión se salve del naufragio la lengua, dicha formación deberemos dársela preferentemente en euskera”.*<sup>32</sup>

Funtsean, ezberdintasunik nagusienen berri eman dugula uste dugun arren, bada hor beste puntu bat ere aipatzea merezi duena. Garbi ikusten da oso iritzi alderantzizkoak dituztela aiputan ditugun bi eztabaidariak ordu hartan euskara besterik ez zekitenek zuten kultur mailaz den bezainbatean. Fraile frantziskotarra honela mintzo zen: *“Y es preciso reconocer el nivel de incultura y de ignorancia en que viven los que no conocen otra lengua que la vasca”* (Ibid.)

Fraile eskolapioak berriz:

*“Para mí —y creo que para muchos otros de mi edad— es por lo menos probable que las generaciones bilingües de hoy en nada aventajan (sic) a las netamente euskaldunas de nuestros padres, fuera del orden técnico (superioridad esta muy secundaria, y que de ningún modo les vino de la adquisición del nuevo idioma, sino de los adelantos materiales de su siglo). Y más que probable, que no sólo no las aventajan, sino que ni las*

(32) VILLASANTE, L.: Aip. liburuska, 7 orr.



*llegan a igualar en claridad y firmeza de principios doctrinales y en solidez de educación. En cuanto al sucedáneo o 'sub-producto' de 'neo-vascos' que se preparan a cambiar de arriba abajo —y antes de mucho tiempo— el espíritu y la mentalidad de la vieja Euzkalerria, ni hablar!"*

"Ya dejé dicho en su lugar lo que para mí y para otros muchos representaba primordialmente el *euskera* como vehículo e instrumento agente de una civilización excelsa".<sup>33</sup>

Baieztapenok frogatzeko argudiorik erabatekoen gisa 1936ko gerratearena aipatzen zion, nola belaualdi euskaldun huts haiek euren zibilizazioa eta kultura —liburu eta eskoletan ikasten dena ez baina bere hitzetan "cultura humana" bai— agerriz erakutsi zuten gerratean prestuki eta zintzoki gudukatuz, gorrotoari, kalumniari, ohointzari eta eraiketari ezezko biribilez erantzunik:

*"Después de ésta última experiencia, creo más firmemente que antes, que en efecto, no hay escuela normal, liceo, internado ni colegio capaz de comunicar a nuestros hijos o a los 'educadores' de nuestros hijos, aquel recto sentido de la VIDA y del DEBER, aquel culto del hogar y del trabajo, aquel equilibrio y cordura, aquella CULTURA Y SABIDURIA AUTENTICA, que han solido heredar y legar por siglos los jefes de las familias euskaldunes en cualquiera de los caseríos y bordas y aldeas de nuestra tierra" (Ibid.).*

Duela gutti honen antzeko iritziak agertu ditu Txomin Garmendia bertsolariak *Diario Vasco* egunkarian ("Kultura- etxeak" 1992-10-18) gure herrietan zabaldu diren kultur etxeak aitzakia harturik. Euren gazte garaiko kultur bideak eta oraingo gazteek dituztenak alderatuz, orduko kultur bideen urritasuna kontuan izanik —funtsean, eskola bakarra=elizako predikua— emaitza onak zekuskin bezala, oraingo gazteek dituzten kultur bide ugariatatik lortzen diren kultur-emaitzak kaskartzat esten zituen.

Orainokoa kulturaz zer ulertzen denari buruzko eztabaida-

(33) MOKOROA, J.: Aip. gutun erdi-irekia, 18 orr.



tik aldatu duguna labur bilduz, Luis Villasanterentzat euskaraz kultura izena merezi duenik kasik ezer ez da eskaintzen; Justo Mokoroarentzat kultura kontzeptuaren azpian nolabaiteko ikuskera eta pentsamolde asko estaltzen da. Honentzat gerraurreko belaunaldi euskaldunek zuten heziera eta moralitasuna nekez hobe litezke, badu susmo ondoko belaunaldi elebidunek iraganeke bikaintasun hura kaskartu baino ez duten egingo. Harentzat aurrerapenaren mundu berrian, gizarteko egituren modernizazioak dakarren mundu-ikuskeraren eta jokabidearen aldetiko aldaketari aurre egiteko, orain artekoan ez bezala jokatut beharra dago, bestela Euskal Herriaren betidaniko balio moral eta erlijiosoak arriskupean dira.

Gatozen beste euskal idazleengana. Orixek gorago adierazi bezala, kultura adigaiari berari lotzen zitzaion azpiak jateko. Kultura, katea gaitzesgarriaren azken mailatzat esten zuen, aurreragoko humanismo eta zibilizazioaren semetzat:

*"Nere gaztezarroan 'instruido, ilustrado' esan oi zuten erderaz; orain culto diagote. Zera esango dit norbaitek: kultur orrek gizon osoa atzematen dula, bai ta biotzari edo oitura onari dago kiona ere. Nik ez dut ontzat artu beiñere adiera ori ustelkeria besterik ez baitu ekarri berekin. Gaiñera, gure iaurespide edo erlisioa ordeazteko ekarri dute, lenago civilization eta lenago Humanismo bezala".<sup>34</sup>*

Bestalde, artikulu honen bidez bere iritzia agertu ezezik Andima Ibiñagabeitia —"xeme" deitzen zion honi— berenera bilzteza ere lortu nahi zuen, kultur lanak egin beharraren lehentasuna aldarrikatzen zutenera makurtuxe edo makurtze bidean ohartzen zuelako. Justo Mokoroaren ustebidea jarraibideztat erakusten zuen: "*Ni Mokoroa'rekin nago... Naiago nuke 'Genio y Lengua' ta 'Carta semiabierta' nere ba'nitu, bost duroko bat baiño!*" (ibid.).

Andima Ibiñagabeitiak berak lehenxeago argitara emana zuen artikulu bat *Gernika* aldizkarian. Kulturaz aditzen zenari

(34) ORIXE: "Ezinbestean (Andima'ri)" in *Gernika* 23, 1953, 196-197 orr.



zegokionean, inoren aldera egin gabe ematen zuen eztabaidaren berri eta batez ere batasunerako literatur euskalkirik egokiena zein zenaz arrazoitzerakoan ematen zuen bere gipuzkera osotuaren aldeko iritzia. Andima Ibiñagabeitiak, jakina denez, iritzi zabalekoa zelarik —bera fededuna, batez ere Jesukristok emaniko etsenpluaren miresle handi zen nik irakurri dizkiodan artikulu eta gutunen arabera— ez zuen bat ere heraberik berak ez bezalako ideologia eta sentiera zutenen bulkatzaile eta adore emale handi izateko. *Gernikaren azken alean gisa honetan adierazten zuen delako aldizkariaren iritzi zabaltasuna eta honen kariaz zein maitea zuen:*

*"Sail ortan zabaltasunak eta zailutasunik aundiena ere erakutsi dizkigu, gure artean ain bearrezko ditugun adimen zabaltasun eta zailutasuna. Ez noski aburu-bakarpean guztiak menperatuz, baizik eta bakoitzari bere buru eta gogoetaen askatasun edatuena emanik".<sup>35</sup>*

Hemendik bere samina Gernika hiltzera zihoala jakitean, *"Egia esan, penaz iakin dut 'Gernika' urte onekin iltzera doala. Atsekabez, gure zuzi argiena akitzera doakigula"* (Ibid.).

A. Ibiñagabeitiak aiputan hartzen duen zabaltasun hori benetan hala izan zela frogatzeko aski da F. Krutwigen eta batez ere Jon Miranderen artikuluak irakurtzea aiputan dugun aldizkarian. Hark Gernikako Arbolaren fruitutzat: *Egia ta Tolerantza* jotzen zituen.<sup>36</sup> Hondarrik hondarreanean, Egia bakarrik eta erabatekorik ez zegoela zioen politikan ez filosofian eta ezta erlijioan ere. Nork bere egia, eta egia tolerantziaren lagun hertsia. Fanatismoa eta intolerantzia gezurraren lagun. Horra Gernikako Arbolaren zituak.

Jon Mirandek bere aldetik, lehenbizi euskaraz eta gero gaztelaniaz "Euskaldungoaren etsaiak" zeritzan artikulu<sup>37</sup> —lapurtera klasikoz idatzian— Espainia eta Frantziako estatu "latin-berriok" eta Erromako Eliza jotzen zituen euskaldungoa-

(35) IBIÑAGABEITIA, A.: "Gernika, gure aldizkaria" in *Gernika* 23, 1953, 196-197 orr.

(36) KRUTWIG, F.: "Gernika Arbolaren Fruituak: Egia ta Tolerantza" in *Gernika* ..., 1951, 66-71 orr.

(37) MIRANDE, J.: "Euskaldungoaren etsaiak" in *Gernika* 23, 23, 153, 85-87 orr.



ren etsai nagusizat: alderdi materialean aipatu bi estatuak eta izpirituari zegokionean Erromako Eliza; antzina gogo basa ginenok, bestela esan, otso, gogoa endekatuz bildots bihurtu gintuelako:

*“Euskalherriko adimen bizkorrak, euskararen eta euskal-kulturaren alde lan egiteko orde z aphezgaitegian sartzen eta proselytismuaren aritzera ioaiten dira lurralde hurrunetarat, ad maiorem gloriam Romae, bainan gure herriarentzat onurarik gabe”* (Ibid.).

Gerraondoan gerraurrean ezagutzen ez zen ideologia aniztasuna sortua da. Dagoeneko euskaldun fededunaren topikoa arrakalatu egin da. Joanes Artzaia zen haritz gotorrari adabegi berriak sortu zaizkio aitaren ezpalekoak ez diruditenak. Ondotik jasoko dugun eztabaidak ere horixe berrestera eramango gaitu. Enborra ez bezalako adabegiekin gainera enborra bera ere adabegitu dute nolabait.

Lapurtera klasikoa, alde batetik, belaunaldi arteko gatazka-ren sinbolotzat har badaiteke ere, kontu eginik euskal letretan nagusi izan den eta artean den ideologia gaitzesten edo auzitan jartzen duten F. Krutwig eta Jon Mirandek lapurtera klasikoa jo dutela begiz, aldi berean kontu egin behar da baita ere, betidaniko euskal erlijioitasun eta kristau-moraltasuna begiratu nahi duen Luis Villasante ere erabat atxiki zaiola L. Klasikoari. Frogatu uste dugu azken hau urrun zegoela hainbat ikuspunturi zegokionez Justo Mokoroa eta Orixegandik.

Iradokitzen dugunaren sendogarri, Andima Ibiñagabeitia, ideologiaz hain heterodoxo ez izanik ere, oso iritzi zabaleko izaki eta ondoko eztabaidan hobeki ohartuko dugunez, euskal heterodoxia euskaraz bazkatu beharraz etsi-etsirik agertzen zitzaigun eta are, honi haize emateko ere ezin prestago.

### 3. Olerki erotikoak

Lehenbizi, eztabaidari berari jarraikiko gatazka agerkerietan agertu bezala eta tarteka auzi honetan euskarari bide berriak urratzearen alde jo zutenek euren artean zein burubide zerabiltzaten emango dugu aditzera.



Auziari hasiera Andimaren *Euzkera ta liburu lizunak* zeritzan artikuluak eman zion. Funtsean, errealitate berri bati erantzun beharra salatzen zuen: ideologia eta moral ezberdineko jendea dago gure aberrian eta giza talde guztiei eman behar zaie atsegin duten bazka. Orainokoan euskaldun fededuna zerbitzatu badugu aurrerakoan bestelakoak aintzat hartu behar ditugu eta euskararen bidez lur berriak oinkatu:

*"Auxe esan nai dot: Aberri barruan, TASUN eta KERI guztiak izaten dirala: Edertasunak eta Arinkeriak; Maitasunak eta Maitakeriak. (...) Orain arte, euskera alde zerbait egin nai izan dogunok TASUNATZAZ bakarrik jokatu gara, KERI alde ori aldebat utzita. Eztot esango okerreko bidetik ibili garala, ez orixe, baña giztalde (sic) askori opor egin dautsogula, ori bai... Eta idazti lizunak (pornografia) eurak be euskeraz egingo ba'lira? lkaratu?".<sup>38</sup>*

Artikulu berean gai honen inguruan gertaturiko pasadizo baten berri ematen zuen. Nola aldizkari pornografiko frantsez bat eskuratu zioten gazteleraz ipin zezan eskatu ziotela, eta honek gazteleraz ez baizik euskaraz jarriko zuela adieraztean nola hori ezina zela aurpegiratu zioten. Hartu du, itzuli du eta horra non harakoren eta honakoren eskuetan zebilen guztien gozagarri. Uste izatekoa zenez, delako artikulu honek orduko zenbait euskaltzale asaldarazi zituen eta kontrakotasunik ausarki sorterazi.

Hurrengo alean *Abandotarrak* sinatzen zuenak "Euzkerea ta euzko-ekandu onak" zeritzana argitara zuen. Bertan euskaldunak beti aztura onekoak eta garbiak izan direla zioen. Euskaraz biraorik ez zegoela eta ez zuela egon behar gainera. Lizunkeriarri bide ematen zitzaion heinean espainiartzen eta endekatzen ginela. Gisa honetan amaitzen zuen: "*Ixan gaitezen, ba, euzkeldun garbiyak eta aberrtzale zintzuak. Eta gauza guztiyen gañian kistarr onak. Euzkerea, bai, baña ez lizunkeribi-de*".<sup>39</sup>

Artikulu hau aiputan hartuz gisa honetan mintzo zitzaion Ne-

(38) IBIÑAGABEITIA, A. (Norbaitek): "Euzkerea ta liburu lizunak" in Paris-eko *Euzko-Deya*, 1952-11-1.

(39) XEMEIN, C. (Abandotarra): "Euzkerea ta euzko-ekandu onak" in Paris-eko *Euzko-Deya*, 1952-12-1.



mesio Etxaniz A. Ibiñagabeitiari: "Zuen irratia ori —Pariseko Euzko irratiaz ari da—, ez da beti ondo aditzen: baña lengo baten zerbait jaso nizun Xemein'ek —Abandotarra izengoitiz idazten zuenak— idatzia. Zerbait idazteko asmotan nago 'integrista' orren arira" (Nemesio 52-XII-9).

Gutun berean gisa honetako aipamenak egiten zizkion Nemesio Etxanizek, A. Ibiñagabeitiak Norbaitek izengoitipean idatziriko artikuluari:

"Zure "Lizunkeria"ri buruzko jarduna ikusi det. Ain zuzen, beste ainbeste gertatua da emengo alde onetan. Lagun bat joan zaio euskalzale jator bati, gordinkeri oiek euskeraz ezin ditzezkela adierazi, esanaz". — Euskalzaleak, lagunaren ezjakina esnatu nairik, artu du luma, ta ordu laurdenean, sudur-aurrean egundoko lantxoak jarri dio. ¡Alakoa lantxoak, ala ere!. Egun gutxi barru bialduko dizut olerki au (bertsotan baita egiña); ta ikusiko dezu eztiola inori zor gordinean. Olerki orren izen-burua "SU-SAAK" [Salvatore Mitxelenaz ari da. IKus: ETXANIZ, N.: "Susa" in *Jakin*, 5, 1978, 98-102 orr.].

Nemesio Etxanizen hitzetan delako *Integrista* horren hariko artikulua hori aipatu Eusko-Deyan *Euskera ta griñak* izenburupean agertu zen. Artikulu horretako guna, funtsean, honakoa da: lizunkeriak komunikabideek gogor haizatzen dituzte. Errealitate horren aurrean, euskaldun eta kristau-moraldun garen aldetik gazteei jaki txukunagoa euskaraz ematea dagokigu. Haatik, badu hasiera askitto lotsagabea *Lafitte kalonjeari* aitzakia emango ziona ihardespenean Nemesio Etxaniz ere *Miranderekin* batean biltzeko. Hona:

"Auzi berria degu euskalzaleok: *Euskera ta lizunkeria* alkar-tu ote ditzakegun. Bereala sortu dira < integristok > makilka.(...) Giza-griñak aizatuaz, erdera guzietan diru asko etxeratzen digute. Euskerak ere irabazpidea sor dezaiguke, lizunkeria aizatuz. Dirua ez-ezik, indarra ere artuko liguke gure izkuntzak bide ortatik".<sup>40</sup>

(40) ETXANIZ, Nemesio: "Euskera ta griñak" in Paris-eko *Euzko-Deya*, 355 zb., 1953-1-1.



Jarraian hau ere bazioen:

*"Ala ere, erdera oiei pekaturaño ez diogu jarraitu nai. Lizun-keriz oben eragiteko bakarrik dan literatura ori beaz, zokora dezagun (...) Burruka sortu diguten saillean bertan, arpegi eman bear diegu euskeraz gure etsaiei"* (ibid).

Azken arrazoiketa honi aurrerago ikusiko dugunez ez-ikusiarena egin zion Lafitte kalonjeak. Pariseko *Euzko-Deyaren* ale berean *Jon Mirandek* izkiriatu zuen gai beraz. Bertan gisa honetan ihardukitzen zituen *Abandotarraren* aburuak:

*"Abandotarraren hitzetarik, euskaltarzunak soilki khristartzuna begiratzeko bide izan beharr lukeela dirudi. Bera katoliko dela agiri baitu, haren ioara haur enthelegatzen dut-bainan go-goan harr beza, arren! oro ez garela hain katoliko sutsu. 'Euskaldun fededun' dio bertze lelo zaharr batek. Fededunago garentz ezen-ez bertze gendeak dudatzen du"*.<sup>41</sup>

Bi artikuluok ihardespelik bildu zuten. *Aita Xabañok* gutuna igorri zion *Monsieur le Chanoineari*, hots, *Lafitte kalonjeari* Jon Miranderen artikuluari oartzera gomitatzen zuelarik.

Gorago Miranderen artikulutik bildu ditugunak Lafitteri ohar-terazi eta delako artikulua biziki gaitzetsi ondotik berak zukeen eragin-itzalaz baliatzeko galdegiten zion horrelako artikulurik gehiago ager ez zedin delako agerkarian, bestenaz oroitaziz *Indexean* sartzea hartze zuela *Mirandek* ezezik *Euzko-Deyak* berak ere:

*"Vous ne vous étonnerez pas si je regrette vivement qu'une page de cette nature trouve place dans un périodique destiné à nos chers compatriotes basques. Votre influence dans les milieux directeurs d'EUZKO DEYA pourrait-elle éviter le retour de semblable article? Sans cela c'est EUZKO DEYA lui-même qu'il conviendrait de mettre dans cet INDEX qu'a lu Mr. Mirande"*.<sup>42</sup>

Gutun honen eraginez edo lehendik ere ihardesteko gogo-

(41) MIRANDE, Ion: "Liburu lizunetaz" in Paris-eko *Euzko-Deya*, 355 zb., 1953-1-1.

(42) CHABAGNO Jean des Missions-Etragères de Paris-ek sinatua Le 9 Janvier 1953.



tan zena sustatu zuelarik, *Lafitte* kalonjeak gutun luzea izkiriatu zuen *Herrian* aiputan hartu dugun Miranderen artikulua batean orainago aiputan hartu Nemesio Etxanizena ere burutik egindako batzuren ekintzatatzat etsiz:

*"Parisen agertu bi artikulutan, bi eskualzale, batto mendiz haraindikoa, bertzea hunaindikoa, berriki ari izan zaizku auhen eta sinkulinaz, baizik eta zerak (...) ari daukula eskuara galtzen (...) eskuaraz ez omen baitugu aski erabiltzen irakurgai lizunik!*

Zikinkeria dariogula izkiriatur, ba omen ginuke arrakasta biziki gehiago, eta eskuarazko liburua bichkotcha bezala sal omen litake... Holakorik gogoratzea bada zerbait, aipatzea ez da gutiago: mozkor batek, ez dakienean zer mintzo den, athera ditzazke gisa hortako arrazoin ahulak; harrituak gaude nola odol hotzean norbaitek izkiriatu ahal dituen eta agerkari batek agirat eman".<sup>43</sup>

Ondotik, euskara ez zuela euskaldunengandik bereizten zioen, eta Ebanjelioari zeudela:

*"Eskualduna nahi dugu norbait izan dadin, gorphutz eta ari-ma, sendo eta garbi egonez edo bilhakatuz, egiari eta ongiari emanaz. Ez dezakegu beraz ez hala ez denik ez eta gaizkirik onhart, nahi bezain ederki eskuaraz panpinaturik ere"* (Ibid).

Buruenik, Miranderen artikuluari ihardespina emateari lotzen zitzaion: hau nahiz euskaltzale zen eurengandik, hots, giritinoengandik arras hastandurik zela bere fede eskasagatik; halaber urrikari zuela Lafittek, berak ere fedea gal baleza ez zekikeelako zertaratuko zen, eta otoitz egitea zegokiola, Miranderi ere begiak argi zekizkion Jainkoaren argitasunari buruz.

Lafitteren honek kontrakarrezko bi artikuluska sorterazi zituen eta hauekin amaitu zen euskara eta lizunkeriar buruzko eztabaida.

Lehenbizi, A. Ibiñagabeitiarena agertu zen eta bertan Jon Mirande eta Nemesio Etxanizen izena garbitzen lehiatzen zen:

(43) LAFITTE: "Eskuara eta irakurgai lizunak" in *Herria*, 1953-1-15.



"Zertako ez dugu aitortuko euskaldun fededunetz gainera ba direla bertze batzu ain fededun ez direnak? Zergatik ez ditugu argituko oroen aburuak auzi huni buruz? Ez dugu izan nahi bereak azal eta bertzenak itotzen dituten gizon ertsiak".<sup>44</sup>

Hurrenik, Nemesio Etxanizena.<sup>45</sup> Honek aurrekoan Abando-tarrari egin bezala onez onean ihardesten zion Lafitte kalonjeari goragoko lerroetan bilduak ditugun argudioak beste behin adieraziz. Gorago ere aditzera eman dugunez, eztabaida hau, haatik, ez zen teoria hutsaren gainean eraikitakoa.

Engoitik Jon Mirandek olerki sorta ederra ondurik zuen eta Andimak bere aldetik argitaratzeko prest zituen N. Etxanizi 1952aren hondarrean adierazten zioenez: "*Mirande'n olerkiak ere gerturik dauzkate argitaratzeko. Olerkari gazte onek euskera betiko lelotik atera ta maita-leloetan sartu du, gordinki ta ausarki*" (Andima 52-12-19).

Bere langintzari zegokionez honela zioen: "*Lanarteka Ovidius'en 'Ars Amandi' ots 'MAITA-BIDEA' euskerara itzuli dizut. Gerturik daukat irarkolarako, sarrera ta oarrez jantzia*" (Ibid).

Nemesio Etxanizek ere aginduak bide zizkion olerki vanguardistak:

"*Pozik jasoko ditut agintzen dizkidatzun olerki vanguardistok. Zaude trankil, ez ditut lau egaletara barreiatuko, eta ikaratu ere ez naute egingo. Emen gaindi, gordinkeririk ugari irakurria naukazu euskeraz*" (Andimak 1952-12-19).

Nemesio Etxanizek olerkiak aipatzen dizkiola, 1953aren lehen seihilabetean onduko zituzkeen era berriko olerkiak, alegia, askatuak, *Egan* aldizkarian argia ikusiko zutenak. Halaber argirik ikusiko ez zuten bi olerki, hain zuzen, aurrerago aztertuko dugun *Griñen loa* olerkia eta *K ta N* zeritzana.

Olerkiok, batetik, Andimaren goresmenak jasoko zituzten: *Zure olerkiak benetan ederrak, "Eztai-gaua" eta "Maitasun el-*

(44) IBIÑAGABEITIA, A.: "Labur..." in Paris-eko *Euzko- Deya*, 1953-2-1.

(45) ETXANIZ, Nemesio: "Apez yaun bati" in Paris-eko *Euzko- Deya*, 1953-3-1.



*dua" batez ere.* ("Griñen loa" olerkiaren bi azpi-izenburu dira. Andimak 53-8-29). Bestalde, Nemesio Etxaniz bera ere zalantzatan zebilkeen: "*Bide onetik ote zabiltzan galdetzen didazu?*" Andimak zalantza guztiak aienatzeaz batera adore ematen dio:

*"Bai orixe, oberik ezin zentzakean autatu. Garaia dugu gure arteko betiko leloak alde batera uzteko. Izkera iaso nai badugu, gai berriak barna erabilli bear dugu, zuk orain darabilzkizun bideetatik barna"* (Ibid.)

Orixek berriz, aiputan dugun Nemesio Etxanizen olerki honi beroni olerki lotsa emangarri zeritzon,

*"Baiataratu zera, orregatik, Etxaniz'en "Griñaren loa" gordiñegia dala. GERNIKAN ez dezake argitara (...) ALDERDIkoek ez dute onartuko inolaz ere, likiskeri ori, arri ta belarri eginik nago olako gizon onari nola ialki zaion olerki lotsa emangarri ori. Zorigaiztoko moda!"*.<sup>46</sup>

*Jokin Zaitegik* ere ez bide zituen oso begi onez ikusi, Nemesio Etxanizek hari eginiko gutunak salatzen duenez. Bidenabar, gutun honek berak bide ematen digu, Nemesiok bere adiskide euskaltzaleen artean zernolako harrera izan zuen jabe gaitzen:

*"Noan olerkietara. Auei buruz, uste gabeko iritzia artu dizkizut. Batezere GRINEN LOA ta K ta N'ri buruz. Olerki bezala, gorago deritzaie geienei oietako lenbizikoa. Artetxe'k etzion iritxi olerkia 'K ta N'ri. Maritxu Barriola'ri, bigarren au gordiñagoa zeritzaion. Mitxelena Xalbatore'ri, biak malla berdiñekoak iruditu zitzaizkion olerki-aldetik. Lekuona'k iritxi estuagoa izango zuela, uste nuan, moral-aldetik. Baña etzan onela izan. Zuk berriz, orkanpuan aspaldi ontan ibillia bezela, iritxi zabalagoa izango zenuala, uste nuan; eta aldrebes izan da. Zu, etzera ausartzen, izenordez ere, zure aldizkingi ortan bi oiek argitaltzen"*. (Nemesio 53-XII-27).

Euskara erotikaren bideetatik barna trebarazi eta aitzinaraz-

(46) ORIXE-k Zaitegi-ri Zaragoza-tik 1953-X-25.



teko ahalegin hauek ez zuten adur onik izan lan honen lehen zatian begiz jo ditugun hiru olerkiena aipatu dugunean adierazi bezala. Eta ez da zer miretsi, euskaltzale eta abertzale adiskideek berek ere gordinegitzat epaitzen baitzituzten Nemesioren beraren olerkiak. Ondoko olerkiok zer zori izango zuten erraz da igertzen.

Guzti honek aurreko eztabaidak bezala, gerraondoko gurutze-bidean den Euskal Herriaren kultura nahiz literatura alorretan nabaritzen den krisi ideologikoaren printza ezberdinak erakustarazten dizkigu.

Honen aurreko eztabaidakoan, besterenak beste, Jon Mirande eta A. Ibiñagabeitiaren ikusmoldeak ere begipean izan ditugunez, honako honetan kasu eman diezaiogun berariazago Lafitte eta N. Etxanizen arteko eztabaidari. Lehen irakurraldian Lafitte kalonjearen arrazoiketa zentzudunago eta gisakoago iduri luke Nemesioren baina. Nor bera fededun izanik, zer dela eta bestelako ustebidea dutenekikoa egin nahi hori. Honakoa datorkigu burura: nork bere irizpideak aitzinaraz bitza eta ez bedi bestetara lerra. Historiari gibel emanez gero, segurki Lafitte hizpidean dago.

Alabaina, Nemesio Etxanizen eta are Andima Ibiñagabeitiaren jokabidea aditu ahal izateko, ikuspuntu ahistorikotik behatutik gutienean bitxia dirudiena, gerraondoko intelligentsia oroz gainetik euskaltzale honek bizi duen aldi historiko jakinari begi eman beharra dugu.

Nemesio Etxanizentzat, Eliz agintariek aginte zibil, damurik katoliko izenondoaz harro dauden bezain zinez antikatoliko direnekin bat egiteak euskaldunen endekatze moralak erakarri du. Katolikotasunaren izenean euskaltzaletasun eta euskal herritasun guztiari gudu ematera prestatu dira, ondorioz lehen Euskal Herri zena zinez harako *Salvatore Mitxelenaren gurutze-bideko* herri bilakatu dutela.

Eliz hierarkiak Aginte Zibilari esku emanik sustatzen diharduten Euskal Herriaren endekatze batez ere moral honen baitan barrena, ezin joka liteke besterik gabe gerraurrean bezala, harako *Lizardik Euskaltzaleak* taldeari ezartzen zizkion bi hesiren



barruan huts-hutsik: "*Euskaldun on guziek dute gure elkarte on-tan sarbiderik. Iñori etzaio galdetzen zein politika aldekoa dan, ezta ere politika zer dan badakian. Bi esi bakarrak ditugu: Jainkoa ta bere lege zuzenak ez oinperatu: Euskalerrria biotzean euki*",<sup>47</sup> honezaz landako ideologi-barruti ezberdinetakori eskurik luzatu gabe.

Gerraren ondoreek Lizardik ezarri bi hesietarik, lehenbizikoari noraezeko ez eriztera ekarri ditu Andima Ibiñagabeitia eta orobat Nemesio Etxaniz ere ohartuki edo oharkabeaxe.

Garbi ageri da hor bigarren hesiari aski eriztetik etorri den euskararen gainean bermaturiko elkartasunik halako nahiz hola-ko sinestedunen artean; gorago aldatu dugun bezala Jon Miranderen hitzetan:

*"Eta oraiko euskaltzale ta abertzaleen artean, pantheistak, neopaganu bai eta atheistak ere ba gagoz-edo-ta khristar-theistak egon arren berhain Vatican-zaleak ez garenak- herri orotako intelligentsian bezalaxe"*.<sup>48</sup>

Aztertzen dihardugun urteotan Andima I. nola Nemesio E. *khristar-theista* izan arren hain *Vatican-zaleak* ez zirenen artean zeudekeen eskierki —Nemesio Etxaniz bera, guztiz ere, Espainiako eta are Euskal Herriko apezpiku eta hierarkiaren kontrako agertzen zaigu, hain zuzen aginte zibilari estekatuegi zeritzelako-. Orobat oroit bedi, J. Mirande, Andima I., F. Krutwig, Peillen anaiak eta Mirande maiz elkartzen zirela Parisen urte-bitarte honetan, segurki abertzaleok zituen gogoan Jon Mirandek goikoa izkiriatu zuenean.

Lehengoz gain, diogun gogo-giro eta elkartasun honen agergerri dira ondoko lekukotasunak. Bata, Nemesio Etxanizek Andima Ibiñagabeitiari Paris-eko *Euzko-Deyan Lafitteri* ihardespen gisa prestatu artikulua igortzen dioneko gutun berean dioena:

(47) LIZARDI, Xabier: "Arrasate-ko itzaldia", 1930-7-30 in Otaegi, Lurdes (prest.): *Kazetari-lanak*, Erein, 1987, 270- 275 orr.

(48) Ikus 37. oharra.



*"Hollywood (¿onela idazten al-da?) oraingoan garaitu degu, nunbait. An ere, pelikula bat edatu nai danean, eskandalo txiki batzuek asma oi-dituzte, ta guk aien trapukeriak ikasi. Gora goaz euskaldunok"* (Nemesio 1953-II-?)

Betidaniko jokabidea hutsala gertatzen denaren kontzienzia, *eskandalo txiki batzuek* asmatu beharra aintzakotzat har ditzaten.

Bestea, euskaltzaleon arteko harreman pertsonalak. Nemesio Etxanizek Jon Miranderi Parisera bizitzera joateko guraria ezagutarazi zion 1954ean, Hego Euskadin oso giro itogarria eta jasangaitza somatzen zuelako. Gutunez ezezik bi aldiz bederen egon ziren elkarrekin buruz buru, behin 1954ean Donostian eta bigarrenkoz 1956an Parisen, Nemesio Etxaniz II. Euskal Mundu Batzarra medio hiri horretara biltzean. Azken honetan batak besteari euren barne minberatuaren berri eman ziotela zioen gutun batean. Nola adi liteke bestela, hain iritzi ezberdineko abertzaleen arteko elkartasuna eta are barnekotasuna ere.

Dudarik gabe, eztabaida hauek beste testuinguru orokorrago baten baitan txertatu beharrekoak dira. 50eko hamarkada honetan 60ko hamarkadan areagotuko den prozesu bat abiarazten da gerraurreko teokraziaren nagusigotik sekularizazio biderantz. Baiezta liteke segur higidura honen baitan barrena euskal gizarteak dituen barne-gatazken adar askotariko bat konnotatzen dutela tirabirok, halarik ere azterketa ugariaren beharretan dugu diogun delako prozesu orokorrago batean txertatze hori.

Oraingoz, honenbestez etsitzen dugu, besterik gabe, hiru olerkiotan nabarmentzen den literatur kodetzearen berri emateko.